

# FUNTSEZKO JARDUERAK

---

Taldeko partaide bakoitzak hainbat puntu sendo eta abilezia ditugu eta hauez baliatuko gara gure zerbitzua aurrera eramateko. Guk egin ditzakegun lanak gure esku utziko ditugu, profesionalen laguntzarik gabe, horrela, enpresarentzat funtsezkoak diren eginbeharrak kontrolpean daudela ziurtatuko dugu.

Hasieratik, argi utzi nahi dugu, ez dugula prozesu guztian zehar antolaketa arazo, gaizki-ulertu edo atzerapenik egoterik, horregatik taldekide guztiak egongo gara gertakari guztien gainean, hau da, aterkien kokalekua eta estruktura kokalekuaren jarraipena egingo dugu ordenagailuaren bitartez. Honekin aterkien ongizateaz ziurtatuko gara, eta aterkiren bat puskatuta edo behar ez den tokiren batean badago arazo hau konpontzeaz arduratuko gara denon artean.

Gure egitasmoan zifra handiekin jokatu behar dugunez, funtsezkoa litzateke diruaren administrazio edo kudeaketa finko eta zorrotza izatea. Funtsezko baliabideetan esan bezala, Nerea eta Marina izango dira honen arduradun. Konkretuki, Nereak diru-sarrerak eta diruaren kalkuluak egingo ditu, hots, gure dirua nondik datorren eta gure transakzioekin irabaziak lortzen ditugun. Marinak berriz, horren kontrola eta gestioa gauzatu du; lortutako diruarekin zer egin beharko litzatekeen gomendatzen, eta hori kontuan hartuta, beharrezkoak diren aldaketak proposatuko ditu, gure zerbitzua dirurik xahutu gabe aurrera atera dadin.



Aplikazioaren diseinuan eta kudeaketan Luken izango da arduraduna, izan ere, aplikazioen diseinu, sorkuntza eta kudeaketareninguruko klaseak jaso ditu, hala ere, beste kide baten laguntza behar izango du arazorik izan ez dezan; Nereak lagunduko dio, aipatutako klaseetan ere egon baitzen. Aplikazioaren jarraipena Lukenek egingo du, ordenagailuarekin egongo denez, e-mail edo bestelako mezuak berehala ikusteko adi egongo da.

Gure bezeroekin harremana mantendu nahi dugu, beraien iritziak, zalantzak, proposamenak... jakinez. Elene izango da honen arduraduna, berak gure aplikazioan idazten dituzten iruzkinen jarraipena eta eguneraketa egingo du, aldi berean, bezeroen email-ak eta telefono deiak erantzungo ditu. Berak, beraz, jarduera hau egiteko pertsona egokiena dela uste dugu.



Sare sozialak (instagram, facebook...) eguneratuta mantentzeaz ere bera arduratuko da Annerekin batera; hau, argazkiak igoz eta iruzkinak idatziz egingo dugu.

Annek, horrez gain, hainbat elkarterekin eta dendekin kontaktua mantentzeaz arduratuko da. Taldeko idazkaria izango da, izan ere komunikatzeko eta jendea konbentzitzerakoan erraztasun handia du eta oso trebea da.

Gainera, aplikazioaren bitartez, noizbehinka inkestak egingo dizkiegu gure bezeroei. Hau funtsezkoa dela iruditzen zaigu, izan ere, gure zerbitzua zer iruditzen zaien eta ea ondo funtzionatzen duen jakitea ezinbestekoa da. Honen bitartez aterki zerbitzua hobetzea eta dauden akatsak zuzentzea dugu jomuga, era beran bezeroen iritzia jakitea.

The logo for 'aterkeasy' features a stylized umbrella icon above the brand name, which is written in a black, cursive script font.

aterkeasy